

**Gizarte-eragina duen kultura-  
mugimendu handienaren parte izan**



**Zergatik parte hartu Fair Saturday jaialdian?**

Artista, espazio eta proiektu sozialentzako jaialdiaren gida

## Fair Saturday-ri buruz

### **Eta Black Friday egunaren biharamunean zure hirian kultur egun indartsu bat sortuko bazenu?**

Fair Saturday kultur ekimen positiboa, inklusiboa eta irabazi asmorik gabekoa da. **Azaroko azken larunbatero egiten da**, Black Friday egunaren biharamunean.

**Mundu osoko artistak eta kultura-erakundeak jaialdi parte-hartzaile batean biltzen dira.** Haien helburu nagusiak komunitateen eta eskualdeen arteko zubiak eraikitzea da, arteen eta kulturaren bidez; eta tokiko kultura- eta gizarte-sektoreei laguntzea, merezi duten posizio nagusian jarriz, munduari erakutsiz **kulturak eta balioek** funtsezko zeregina izan behar dutela etorkizun hobe eraikitzeko.

**+3.100**  
Ekitaldi

**+42.000**  
Artista

**+150**  
Hiriburu

**+770.000**  
Parte hartzaile

## Nor da parte hartzailea Fair Saturday-n?

Fair Saturday munduko **edozein tokitako artista, kultur erakunde, espazio eta proiektu sozialentzako** mugimendua da. Guztiok erakutsi dezakegu gure indarra eta zer eraiki dezakegun elkarrekin, bizi nahi dugun mundurako.

Fair Saturday **artista amateur, erdi-profesional eta profesionalei** irekita dago, eta **mota guztietako kultur jarduerak** barne har ditzake. Sorkuntza artistikotzat har daitekeen guztia Fair Saturday-n sartzea nahi dugu. Jarduerak honela sailkatzen ditugu:

- Musika
- Dantza
- Antzerkia
- Kantua
- Literatura
- Poesia
- Arte ederrak
- Zirkua
- Zinema eta ikus-entzunezkoak
- Argazkiak
- Performance-a

# Zergatik parte hartu behar zenuke?

## Fair Saturday, gizartean eragina duen nazioarteko kultur mugimendurik handiena


### 1. Egun berezi bat sortu

Egun paregabea, kultura eta proiektu sozialak izango dira protagonista. Ba al dago aukera hoberik? Bat egin mundu osoko milaka artista eta erakunderekin, **aurrez aurreko edo online** ekitaldi bat antolatuz gure webgunearen bidez.



### 2. Zure lana sustatu

Fair Saturday jaialdian parte hartzen baduzu, sormen-komunitatearen barruan zein kanpoan sustatuko dugu zure lana, sare sozialen eta **nazioarteko eta tokiko komunikabideen bidez**. Zure zain gaude!



### 3. Diru-sarrerak lortu

Fair Saturday mugimendutik, kultura baloratzeko eskatzen diogu jendeari. Eta horrek, noski, prezio bat jartzea esan nahi du! **Ez duzu sarrerak saltzeko plataformarik? Aukera\* hori ere eskaintzen dizugu doan**. Zure lana jasagarria izan dadila! *\*Bultzatzailea [www.fstickets.org](http://www.fstickets.org)*

### 4. Gizarte hobea eraikitzen lagundu

GKE edo gizarte-proiektu bati lagunduko duzu zure ekitaldiaren bidez. Horrela, gizartea hobetzeko lanean jarraitzen lagunduko diezu eta gainera, **zure ikusleei zein garrantzitsuak diren gogoraraziko diezu**.

### 5. Fair Saturday fundazioaren laguntza jaso

Ahal dugun guztian lagunduko dizugu. Fair Saturday taldeak **marketing-materialak, sustapen digitalerako tresnak, diseinuak** eta zure ekitaldietarako plataformak emango dizkizu. Adi gure gida eta tresnen atalari!



### 6. Publiko berrietara iritsi

Fair Saturday-ren irismenari eta artisten, espazioen eta proiektu sozialen artean sortutako sinergiari esker, Fair Saturday jaialdian parte hartzea **pertsona talde berri batengana hurbiltzeko tresna bihurtu da**. Eta hau hasiera besterik ez da izan.

### 7. Handiagoa den zerbaiten parte izan

Erakutsi munduari erakunde konprometitua zarela, ez bakarrik kulturarekin, baita gizartean eragina duten ekimen kulturalekin ere. Aukera izango duzu **harremanak sendotzeko eta areagotzeko zure balioak partekatzen dituzten eta desberdintasuna markatu nahi duten beste parte-hartzaileekin**: Espazioak, artistak, kultura-erakundeak eta gizarte-proiektuak.



*"Izugarri gustatzen zait haren espiritua, eta uste dut komunitate handi bat sustatzen duela kultur ekitaldiak eta kausa sozialak elkarrekin lan egin dezaten. Oso garrantzitsua da guretzat jaialdian parte hartzea."*

**Emma Mortimore, The Queen's Hall-eko Marketing Zuzendaria, Edinburgo**



*"Jendeak gizarte gaiei buruzko kezak adierazteko eta mundua aldatzeko kanalak behar ditu, eta hori egiteko aukera dutenean, gauza izugarriak gertatzen dira."*


**Tuula Haavisto, Helsinki Udaleko Liburutegiaren Zuzendaria**



*"Fair Saturday ilusioa da niretzat, kolorea, gauzak ondo egin nahi izatea. Horregatik konpromiso berarekin lerrokatuta sentitzen gara."*

**Txabi Anuzita, UNESCO Etxeko Erakunde Harremanak, Bilbo**

## Zer da Fair Saturday-ko ekitaldia?



**Fair Saturday-ren egun ofiziala** azaroko azken larunbata da. Eskozian St Andrew's Fair Saturday azaroaren 26tik 30era ospatzen da.

Ekitaldiaren jarduera nagusia **kulturala edo artistikoa** izan behar da. Ekitaldi mota? Zure esku!

Artistek aukeratutako **kausa soziala**, antolaketa kulturala edo espazioa babestu, haiek erabakitzen duten moduan.

## Fair Saturday, jaialdi hibridoa

### Online eta aurrez aurre egiñak

Aurrez aurre	Online*	Hibridoa
Aurrez aurreko ekitaldien bidez parte hartu ahal izango duzu, <b>zure lurraldean momentuko mугen arabera</b> .	<b>Zuzenean eta aurrez grabatutako</b> ekitaldeak emititzeko aukera izango duzu. <i>*Bultzatzailea</i> <a href="http://www.fsnext.org">www.fsnext.org</a>	Atera etekin handiena zure ekitaldiari. Antolatu <b>aurrez aurreko ekitaldi bat eta online emititu</b> .

## Zer egin behar duzu?

### 1. Zure ekitaldia antolatu

Parte hartu ekitaldi berri bat antolatuz edo **azaroaren 26rako, Fair Saturday egunerako**, aurreikusita duzun beste bat gehituz.

- **Espazio** bat bazara, Fair Saturday-ko artistei edo erakundeei ere eskaini diezaiekezu zure espazioa, baldin eta beren ekitaldia egiteko tokirik ez badute.
- **Proiektu soziala** bazara, zure hiriko artistak eta kultura-erakundeak bila ditzakezu ekitaldia antolatzeko, edo zure kultura-ekitaldia antola dezakezu.

### 2. Kausa sozial bat aukeratu

Fair Saturday Jaialdia apartekoa egiten duen gauzetako bat, **ekitaldiak proiektu sozialekin lotzea da**. Kulturak daukan boterea erakusteko modua da, mundu justuagoa eta enpatikoagoa sortzeko saiakera, eta mundu hobeago bat sortzeko lan egiten duten pertsona eta erakunde guztien mezua zabaltzeko aukera.

- **Proiektu soziala** bazara, zure kausaren alde edo beste baten alde egin dezakezu.

### 3. Erregistratu ekitaldia

Zure ekitaldia programan argitaratuko dugu, promozionatzeko. Erregistratu webgunean, esaiguzu nor zaren eta zer egiteko asmoa duzun.

## Zer da hurrengoa?

Zure ekitaldia erregistratzea lehen pausua da. Zure ekitaldia igotzeko eta etekin handienak ateratzeko gida gure webgunean aurkitu dezakezu. Informazio gehiago nahi baduzu edo zure ideiak kontatu nahi badizkiguzu, jarri gurekin harremanetan:

✉ [fsfestival@fairsaturday.org](mailto:fsfestival@fairsaturday.org)  
☎ (+34) 676 77 75 91 or (+34) 686 82 92 05

